

Ongi etorri Tabor-eko 2009 Queer Pride Parade and Festival-aren web orrialdera.

Web orrialde osoa euskaraz eskaini ezin dizuegun arren, sarrerako orria euskaratu dugu oinarritzko gauza batzuk adierazteko.

Hemen ekitaldi honen zergatiak eta nondik norakoak azaldu nahi dizkizuegu eta era berean, nola eta zergatik parte hartu.

Laburbilduz, ospatu nahi dugu eta ez dago aukera hobea. 2008ko ekainean Brno-n ospatutako Czech Queer Pride Parade-aren ondoren, ohitura mantentzeko beharra ezinbestekoa da. Queer eskubideak giza eskubideak dira, jaiotzez berezkoak eta ez inork emanak. Jaialdi hau ez da protesta bat, Queer komunitatea eta Txekiar Errepublikako komunitate honekin erlazionatutako gaiekiko kontzientzia, eta onarpena areagotzeko aukera da. Are gehiago, guztiontzako jaia da, genero identitateak edo aukera sexualak axola izan gabe. Guztiok ikusiak izan behar gara eta gure ahotsak entzunak izan behar dira..

Mundu osoko jarraitzaileekin ere gure jaialdia elkarbanatu nahi dugu. Komunitate indartsuegoetatik ikastea garatzen ari diren komunitateak indartzea bezain garrantzitsua da. Gurekin elkartzeko eta jaialdi hau gure elkartasun eta hazkundearen benetako adibidea egiteko gonbitea luzatzen dizuegu, zein ondo pasako dugun kontutan hartu gabe!!

Web honetan zure izena, zure taldearena, zure kolektiboarena ... eman dezakezu; emanaldi bat eskeini, erakusketa bat aurkeztu, tailer bat edo formakuntza eskaini; bolondres aritu, laguntzak bilatu, iragarri; eta nola ez, parade eta jaialdiaren egitarauari, ostatuari, janariari, Táborreko queer proiektu eta negozioei, haurtzaindegia, aparkalekuari eta eguraldi iragarpenari buruzko informazio erabilgarria aurkitu.

Beraz, hartu egutegiak, zuen agenda elektronikoak eta iPhoneak eta apuntau: 2009ko ekainaren 20a, larunbata!!

Hemen ikusiko gara!

CESTA eta Tábor-eko Queer Pride Parade and Festival-aren Antolatzaileak.